



KULTURA ETA KIROLEKO KONTSEILARIAk foru agindu hau eman du:

"7/2022 FORU AGINDUA, otsailaren 14koa, Kultura eta Kiroleko kontseilariarena, Nafarroako Kirol Federazioen hauteskunde prozesuak arautzen dituen Foru Agindua egiteko prozesuari hasiera ematen diona.

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen 6.2.e) artikulua xedatzen du Foru Komunitateko kirol arloko administrazioaren eskumena dela Nafarroako kirol federazioak eta, hala badagokio, Nafarroako beste kirol entitate batzuk koordinatu eta babestea esleitu zaizkien eginkizun publikoak betetzen ari direnean, haien jardura pribatua ezertan eragotzi gabe.

Uztailaren 5eko 15/2001 Foru Lege horren 42.4 artikulua xedatzen du Nafarroako kirol federazioei, beren berariazko eginkizunez gainera, administrazio arloko eginkizun publiko batzuk ere badagozkiela, delegazioz, eta kasu horretan Foru Komunitateko Administrazioaren laguntzaile gisa aritzen direla.

Eta 49.2.i) artikulua ezartzen duenez, Nafarroako kirol federazioek, delegazioz, Foru Komunitateko Kirol Administrazioaren koordinazio eta tutoretzapean, federazioetako hauteskunde prozesuak kontrolatuko dituzte.

Bestalde, Nafarroako kirol entitateak eta horien erregistroa arautzen dituen apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretuaren 45.1 artikulua xedatzen du federazioko presidentea eta Batzar Nagusiko kideak aukeratzeko hauteskunde prozesuak erregelamendu bidez arautuko direla, ordezkartzaren eta parte-hartze demokratikoaren printzipioei jarraikiz, kasuko kirol modalitatearen berezitasunei erreparatuta.

Eta 45. artikulua horren bigarren apartatuak zehazten duenez, Foru Komunitateko Kirol Administrazioak federazioetako hauteskunde prozesuen araubidea finkatuko du, karguan aritzeko bateraezintasun-arrazoiak barne, estatutu bidez ezar daitezkeenei kalterik egin gabe.

Azkenik, apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenak baimena ematen dio Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriako kontseilariari foru dekretua garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Gaur egun, Kultura eta Kiroleko kontseilaria da kirol-arloko eskumenak dituen, eta, beraz, hari dagokio arau hori garatzea.

Une honetan, kirol federazioen hauteskunde prozesuak erregulatzen dituen araua hauxe da: 359/2015 Foru Agindua, ekainaren 24koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, Nafarroako kirol federazioen hauteskunde prozesuak arautzen dituen. 2016., 2018. eta 2020. urteetan federazioetako presidentea eta Batzar Nagusiko kideak aukeratzeko hauteskunde prozesuetan arau hori aplikatzetik ikasitakoak eta nagusiki teknologia berrien garapenak planteatutako behar eta aukera berriek agerian uzten dute komenigarria dela federazioen prozesu horiek erregulatzeko arau berri bat egitea.

Kirolaren Zuzendariordetzak Kultura eta Kiroleko kontseilariaren foru agindu baterako proposamena egin du, Nafarroako kirol federazioen hauteskunde prozesuak arautuko dituen foru agindu bat egiteko prozesuari hasiera emateko.

Prozesua hasi ondoren, eta erregelamendu-proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa eginen da Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, jasotzeko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru agindua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak). Hori guztia bat etorriz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1artikuluaren xedatutakoarekin.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean eta Kultura eta Kirol Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 273/2019 Foru Dekretuan esleitu zaizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Nafarroako kirol federazioen hauteskunde prozesuak antolatzeko arauak onesten dituen Foru Agindua egiteko prozesuari hasiera ematea.



2. Nafarroako Kirolaren Institutuko Kirolaren Zuzendariordetza organo espezifiko gaitua izendatzea erregelamendu-xedapenaren proiektuaren espedientea egiteko.

3. Foru agindu hau Nafarroako Kirolaren Institutuari, Kirolaren Zuzendariordetzari, Nafarroako Kirolaren Institutuko Administrazio eta Kudeaketa Atalari eta Kultura eta Kirol Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikoari helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an. KULTURA ETA KIROLEKO KONTSEILARIA, Rebeca Esnaola Bermejo."

Honen berri ematen dizut, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2022kootsailaren 15ean.

IDAZKARI TEKNIKO NAGUSIA

Sinadura digitala:
JOSÉ MIGUEL
GAMBOA BAZTÁN

José Miguel Gamboa Baztán